

azpeitian zer?



udal aldizkaria

2016 urria
175. zenbakia



AZPEITIA MAPETAN AGERTZEN DEN HERRI HORI

'Azpeitia Experience' markapean turismoa herri ikuspegitik garatzen hasi da; ekonomia eragiteko garrantzitsua da arlo hori indartzea Udalarentzat



OROIMEN HISTORIKOA

Iragan gertuko eta urruneko memoria ezagutarazi eta gordetzeko urrats gehiago



KULTURA

Sorkuntza gunea osatzeko proiektuaren zirriborroa aurkeztuta; Soreasuko proiektua abiaraziko da

Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzaitza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Parekidetasuna	943 15 79 28
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Baigera I eta II	943 81 44 64 II / 943 81 23 89
Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

Botika txandak

ALBERDI.

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Urriaren 7, 8, 9, 14, 20 eta 25

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Urriaren 5, 12, 15, 16, 18, 24 eta 31

BERISTAIN

Urbite auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Urriaren 6, 10, 19 eta 26

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Urriaren 1, 2, 4, 11, 21, 27, 29 eta 30

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Urriaren 3, 13, 17, 22, 23 eta 28

Ale honetan zer?

Azpeitia ezagutzen eta erabakiak 2

Ingurumena 3

Azpeitia elkarlanean..... 4

Oroimen historikoa..... 6

Ekonomia sendotzen 10

Herri bizia, herri konprometitua..... 16

Eraikitzen 18

Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera izango dugu aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!

Madalena auzoa

Herria sortu zuten lehenengo azpeitiarrak Urola ibai zabalari zati bat lapurtzen saiatu ziren, ubidea estutuz eta horma handiak altxatuz. Soreasuko Sebastian donearen monasterioa herri barruan nahi zuten, erregeak herria sortzerakoan egin beharreko gastuen truke ematea onartu baitzien, monasterioaren ondasun guztiekin batera.

Garaiko herrien ereduari jarraituz egin zuten herria eta eraikitako kaleek bat egiten zuten hasieran

eta bukaeran. Oraindik ere berdin agertzen dira Enparan kalea, Elizkalea eta Erdikalea; puntu batetik ateratzen dira PlazaTxikian eta bat egiten dute herriaren irteeran. Galdu dira herriaren barruan ziren hormak. Hala ere, harresi bat izan zuen herriak eta denbora luzean iraun zuen gainera toki batzuetan. Bertako biztanleek ate edo sarrerak ongi zaintzeko harresia beharrezkoa zen.

Ez da garaiko grabatu edo irudirik kontserbatu.

Herriko berdeguneak osotasunean zaindu eta balioan jartzen

Herriko lorategi eta berdeguneen mantentze lanetatik haratago, herri osoa kontuan izango duen plan integrala diseinatu da



herrietako berdeguneek berebiziko garrantzia dute. Izatez, landatutako eremu urbanoak proportzional-ki eraikitako azalerak baino handiagoak beharko lukete, baina, orokorrean, garatutako hirigintza ereduak ibilgailuen mugimenduari eta instalakuntzei eman izan dio garrantzia. Horren ondorio da herrietako berdeguneen azalera eta lurren hedadura mugatzen joatea. Berdeguneek funtzio estetikoetatik haratago dauden onurak dakartzate; izan ere, pertsona orok behar ditu naturguneek eskaintzen dituzten onurak. Horren jakitun, Azpeitiko Udalak duela zenbait hilabete herriko berdeguneen zaintza lanetik harago, berdeguneen plan integrala egin eta gune horiek bere osotasunean aztertu eta lantzeko bidea hartu du.

Zuhaitzak, altxor

“Ez geunden gustura zuhaitzen kudeaketarekin, eta berdeguneen altxor nagusia izanik, gai horri heldu nahi izan diogu”, azaldu du Josu Labaka zinegotziak.

Gainera, bada gune bat bereziki landu beharrekoa: “Gure lehentasunetako bat Loiolako hiribideko zuhaitzak izan dira. Berdeguneen lanketarako osatu dugun mahaiaren lehen lana gune horretako ezkien egoera aztertzea izan da, bada-kigulako ez daudela egoerarik onenean. Eremu horretako zuhaitzen balioaz jakitun, aditu batekin elkarlanean zuhaitz horien inguruko neurriak hartu behar izan ditugu”, adierazi du.

Berdeguneen
kudeaketa integralagoa
egin eta baliabideak
hobeto aprobetxatzeko
plana egin eta martxan
jarri du Udalak

Aurrera begirako estrategian, orain artean baino garrantzia handiagoa hartuko dute zuhaitzek; izan ere, garbi du Udalak berebiziko balioa dutela herriko konforta, babesa eta bioaniztasuna bermatzeko. Ondorioz, datozen urteetan horien inguruko hausnarketa sakonagoa egitea aurreikusten da.

Estrategia bateratua, ongizate-rako

Azken hamarkadetan Udalak berdeguneen txukuntze lanak egin ditu eta ez horrenbeste berdeguneen kudeaketa osoa. Horri irtenbidea eman eta Udalaren baliabideak hobeto aprobetxatu asmoz, etorkizunerako kudeaketa estrategia marraztu du eta hainbat helburu zehaztu:

- Herritarren ongizatea hobetzea
- Sare urbanoaren biodibertsitatea indartzea.
- Herri irudi bat indartzen laguntzea.
- Berde guneen kontzeptua eraldatzea.
- Lorezaintza eredu berri bat marraztea.

Proiektuak herritarrekin elkarlanean garatzen

Azpeitiko Udalak azken hilabeteotan hainbat bilera egin ditu herritarrei garatzen ari diren proiektuen berri eman eta iritzia trukatzeko



azpeitiko Udalak herritarrei eragiten dieten proiektuen inguruko xehetasunak eta informazioa eman eta iritzia elkartrukatzeko hainbat bilera egin ditu azken hilabeteotan.

Horrela, fase desberdinetan dauden proiektuak azaldu zizkieten leragiten dieten herritarrei.

Azoka plazako obrak

Azoka plazako obrak abuztuaren erdialdean hasi ziren, aurreikusit bezala. Obra horien nondik norakoak eta beste hainbat asmo azaltzeko bilera egin zen obrak hasi aurretik plazako bizilagunekin, alde batetik.

Bilera horretara etorritako bizilagunekin Alde Zaharrean eta, batez ere, plazan

sortzen diren beste zenbait arazo edota gorabeheraz hitz egin eta konponbidea aurkitzeko ahalegina ere egin zen.

Beste aldetik, berriz, Alde Zaharreko merkatariekin bildu zen Josu Labaka zinegotzia; horiei ere obren inguruko

Azoka
plazako obrak
direla-eta plaza
inguruko bizilagunekin
eta Alde Zaharreko
merkatariekin elkartu
da Udala

xehetasunez emateaz gain, azoka plazan etorkizunean bertako produktuak sustatzeko egin nahi den proiektua azaltzeko.

Soreasuko azken zatia

Soreasu auzoa erabat eraberritzeko, bi eta bost etxe-atarien arteko kalea berritzea eta egokitzea gelditzen da. Proiektua eginda, eta aukera desberdinak daudela ikusita, Josu Labaka eta Aitor Bereziartua zinegotziak auzotarrek elkartu ziren beren iritzia jaso eta proiektua bukatzeko.

Auzotarrek erabakitakoaren arabera proiektua bukatzen ari da Udala, eta asmoa, auzotarrei azaldu bezala obrak urte bukaeran edota hurrengoaren hasieran hastea da.

‘Elkarrekin eraikitzen’, gaztetatik beste balore batzuetan hezteko



azken urteotan bezala, Azpeitiko Udalak bultzatuta Iraurgi Berritzen Garapen agentziaren bidez Elkarrekin eraikitzen proiektua

aurrera eramango da ikasturte berrian, eskualdeko ikastetxe guztietan; tartean Azpeitiko hiru ikastetxeetan.

lax, proiektu horretan, markatutako fase desberdinetan, 300 ikasletik gorak eskualdeko errealitatean ematen diren erronka desberdinen inguruan hausnartu, kasuak aztertu eta beren ondorioak atera zituzten. Guztia eragileen laguntzarekin.

Orohar, proiektuaren balorazio oso positiboa egin zuten ikasle, irakasle nahiz eragileetako ordezkariak eta proiektuaren garrantzia azpimarratu zuten.

Partehartzaileek horrelako egitasmoen beharra azpimarratu izan dute, bailarak etorkizunera begira izango dituen erronkei aurre egiteko baliabide aproposa izan daitekeelako. Horregatik, aurtan ere ekingo diote.

Gizarte berrikuntzarako, Urberritzen



Proiektuaren helburuak

Urola Erdian garatzen ari diren hainbat egitasmoek berrikuntza sozialetik zer duten aztertu, eskualdeko esperientziak ezagutzera eman, difusioa egin, balioan jarri eta aurrera begira modu eraginkorrarekin jarduteko hobetzekoak eta erronkak identifikatzen eta ekintza-planak diseinatu eta eragileekin adostu dituzte hilabete horietan.

Berrikuntza sozialean eragiteko ezagutza eta tresna metodologikoak eskualdeko eragileen eskura jarri dira; eskualdeko eragileekin gogoeta bateratua egin da eta etorkizunera begira erronkak eta ikuspegi bateratuak elkarrekin lantzeko konpromisoa hartu da.

Urberritzen eskualdeko berrikuntza sozialean eragiteko prozesua izan da abian azken hilabeteotan. Azpeitiko Udalak Iraurgi Berritzen Garapen agentziaren bidez bultzatu du eta Beterriko Garapen Agentzia eta

Elhuyarrekin elkarlanean, Urola Erdia eta Beterri eskualdeetan ikuspegi sozialetik berrikuntza eragiteko prozesua. Bide horretan urte hasieratik uda bitartean, hainbat eragilerekin elkarlana bilatu eta bultzatu da.

1960-2014 arteko azpeitiarren giza eskubide urraketak, Udal artxiboan gordeta

Aranzadik memoria historikoa berreskuratzeko duen hitzarmenaren baitan eskubide urraketen dokumentazioa eta testigantzak bildu eta gorde dira



Udalean gordeta dago 1960-2014 urteen artean azpeitiarren jasandako giza-eskubide urraketen ikerketaren behin betiko dokumentazioa. Bi urteko ikerketaren ostean, Aranzadiko Lehendakaria den Paco Etxeberriak eta Javi Buces historialariak eman zieten dokumentazioa eskura Eneko Etxeberria alkateari.

“Gertuen dugun historia da jaso duguna, eta horregatik ere bada gogorrenetakoa”, adierazi du Eneko Etxeberria alkateak. “Badakigu urraketa guztiek ez dutela intentsitate berdina izan, eta ez gara urraketak konparatzen hasteko edota urraketa batzuk bakarrik izan direla gurean esateko bezain arduragabeak”. Ikerketen emaitzetan dauden eskubide urraketen aniztasunak berak ere agertzen du egin den lanaren sakontasuna..

Baina giza eskubideen urraketak iraganeko kontua ez direla ere azpimarratu du: “Ezin

dugu esan, giza eskubideen urraketak ez dagoela hemen. Hiru preso azpeitiarren, beren giza eskubideak urratuta dituzte mendeku hutsez egindako dispersioa dela eta”. Hori, giza-eskubideak demokratikoki defendatzen dituzten Europan gertatzen dela ere salatu du.

Javi Buces Aranzadiko kideak iaz Udalarri emandako txostenari egin dio erreferentzia: “Hura erreparatu, txukundu, osatu eta txosten hartan aipatutako

dokumentazioa datu basean bilduta ekarri diogu Udalarri”. Gai konplexua eta delikatu da eta konfidentzialtasuna babesteko kontsultarako prozedura zehaztu dute, eta ez dago edonoren eskura.

Azpeitia, Errenteriarekin batera, bidea urratzen ari da: “Bi herriek beren prozedura eta dinamika dituzte, baina giza eskubideen urraketak osotasunean aztertzen ari dira”, adierazi du.

Paco Etxeberria Aranzadiko lehendakariaren arabera, “1960-2014 urteen arteko etapa iragan hurbila da, baina garai horretan gertatutako eskubide urraketak ikertzeko unea orain da. 50 urtera berandu izango da, eta ziurrenik ikertzeko askoz zailagoa izango da”.

Justiziarako sarbidea

“Orain, Udal artxiboan Angel Otaegiren kasuaz lortu ahal izan den expedientea dugu. Justiziara sarbiderik izan ez duen kasuetako bat da. Fusilatu zutenek izen abizenak zituzten. Asmoa egia osoa jakin eta errekonozimendua egitea da, justizia izatea ez delako erraza”, bukatu du.

Angel Otaegiren kasuaren egia, justizia eta erreparazioa izateko, bere familiak pausoo garrantzitsua eman zuen irailaren 27an, hil zuteneko 41. urteurrenean. Hilketak haien arduradunen aurka kereila kriminala aurkeztu zen Mertxe Urtuzaga Otaegiren lehengusuaren izenean. Egun garrantzitsu horretan ere Azpeitiko Udalak familiaren ondoan egon nahi izan zuen, eta Mikel Elortza abokatuarekin batera Eneko Etxeberria alkatea eta beste hainbat zinegotzi joan ziren Azpeitiko epaitegira.

Gaur egun oraindik ere giza eskubideak urratzen zaizkien azpeitiarrak daude, eta Udalak horri buelta emateko lanean segituko du

Azpeitiko kartzelan hil ziren zazpi errepublikarrei omenaldia

frankismo garaian, Azpeitiko kartzelan hildako Juan Casado Lorite, Francisco Delfa Fernandez, Francisca Galvez Vazquez, Luis Palomino Gutierrez, Juan Morales Artiles, Eusebia Delgado Pérez eta Manuel Martin Martinezen omenez ekitaldia egin zen pasa den irailaren 22an, anbulatorio aurrean. Bertan izan ziren, besteak beste Delgadoren eta Martinen senideak Andaluzia eta Bartzelonatik etorrita. Ekitaldia anbulatorio aurrean egin zen, garai hartan eraikin horixe baitzen gizonezkoen kartzela.

Ekitaldi xume horren bidez, Eneko Etxeberria alkatearen hitzetan, “beren etxeetatik urrun hil ziren andaluziar horiei, preso politiko horiei errekonozimendua egin nahi izan zaie”. Omenaldi hori Aranzadi Zientzia elkarteak azken urteotan Azpeitiko memoria historikoa lantzeko egiten ari den lanketa eta azterketek egin dute posible.



Loiolan sortu zen Eusko Gudarostearen 80. urteurrena gogoan

eusko Gudarostearen 80. urteurrena gogorarazteko ekitaldia egin zuten Azpeitiko Udalak eta Aranzadi zientzia elkarteak uztailaren 22an, Loiolan. 1936ko abuztuaren 5etik 8ra EAJk, EAE-ANVk, Jagi-jagik, ELA-STVk eta Euskal Nekazarien Batzarrak altxamendu faxistari aurre egiteko gudarostea sortu zela gogorarazteko ekitaldia izan zen. Gainera, bertan azaldu bezala, Javi Bucos Aranzadiko historialaria urtea bukatzerako aurkeztuko den Eusko Gudarostearen inguruko liburua osatzen ari da.

Ekitaldian izan ziren, Arantxa Saset, Kandido Sasetaren iloba; Nuria Alberdi, Jagi-jagiko kide Mikel Alberdiren biloba; Jose Joaquin Egaña EAJko militantearen izen bereko iloba; Floren Zubiaur ELA-STVko sindikatuko kidearen ordezkari ELAko Amagoia Unanue etorri zen eta Jose Arana Irastorzaren sendiak etorri ezin zuenez, ekitaldian irakurtzeko gutun bat bidali zuen. Ekitaldi hunkigarria izan zen.

Ostean, Arrupe aurreko lorategi zatian, Eusko Gudarostea Loiolan duela 80 urte sortu zela adierazten duen harritzko plaka bat, haritza eta ikurrina handi bat jarri ziren. Loiolara bisitan joaten direnek zein herritarrok horiek ikustean Eusko Gudarostea han sortu zela memorian gordeta izan dezaten.



Soreasuko espazioaz gain, sormena indartzeko dinamika helburu

Kultur Mahaia Udalaren eskaeraz Soreasuren inguruan egiten ari den parte hartze prozesuaren baitako lehen zirriborroa aurkeztu dute, eta sormen gunea baino sormen dinamika indartsua sustatzea izango da helburu



azken hilabeteotako hausnarketa eta ideien bilketaren ostean, Azpeitiko Kultur Mahaia Soreasun sormen gunea osatzeko proiektuaren lehen zirriborroa aurkeztu du.

Udalak proposatuta, azken hilabeteotan sormen inguruko hausnarketa gidatzen ari da Kultur Mahaia, eta talde, norbanako eta beste hainbat eragilarekin egindako bilera eta batzarren ostean, ezagutza eman zituzten lehen ondorio eta asmoak.

Udala Sosearu antzokia bota eta gaur egungo eraikina egiteko asmoarekin hasi zenetik 14 urte pasatu dira, eta nahi baino makalago doa Soreasu kultur erreferentzia bilakatzeko proiektua. Hasieratik, Soreasun

taldeen egoitzak biltzeko apustua egin bada ere, Kultur Mahaia egindako diagnosian taldeek hara joateko nahirik eta beharrik ez dutela ondorioztatzen da.

Beraz, hortik abiatuta, disziplina desberdinak batuko dituen eremuen baitako sormen gunea sortzearen proposamena luzatu dute.

Eremukako sailkatze horrek disziplina desberdinen saretzea eta norbanako sortzaileei sormen prozesua garatzeko espazioa eskaintzeaz gain, belaunaldien arteko transmisioa errazteko modua egiteko aukera eskaini dezakeela aurreikusten da.

Helburu horiek aurrera eramateko arte eszenikoan, hitzaren, irudiaren eta soinuaren eremuek beren espazio bereizitua izango dute Soreasun Horiez gain, harrera, informazio gunea eta bilgune

**Sormen
gunea osatzeko
hausnarketaren
ostean, proiektuaren
zirriborroa osatu da;
orain asmoak gauzatzeko
pausoa emango da**



izango den topagunea eta erabilera anitzeko areto bat ere izango dituzte sortzaileek erabilgarri Soreasun.

Orain, bigarren fasea

Josu Labaka Kultura zinegotziaren arabera, Kultur Mahaiak egindako lehen zirriborroarekin "pauso garrantzitsua" eman da: "Bide bat egin da, galdera batzuei erantzun zaie. Orain, bigarren fase batean sartuko gara. Soreasuk izango duen funtzionamendua, kudeaketa... findu egin behar dira, eta finantziarioari erantzun, beharrak zehaztu ondoren", azaldu du.

Zeregin datozen asteotan helduko dio Kultura Mahaiak. Beraz, lehen pausoa eman bada ere gauza asko daude oraindik ere zehazteko. Proiektua abian jartzeko Labakak azpimarratu nahi izan du aurrekontu zehatzik ez duela udalak horretarako: "Baina prestutasun osoa dugu proiektua garatzeko eta aurrera eramateko", azaldu du.

Oztopoak oztopo, bost sorkuntza proiektu abian

Espainiak EAEn duen ordezkariak jo mugan baditu ere, abian dira Azpeitiko Udalak Sorkuntza Bekaren bidez lagundutako bost proiektuak. Aurten lehen aldiz plazaratutako beka horren helburua da sortzaile gazte edo berriei dituzten ideiak garatzeko baliabideak eskaintzea. Lehen beka deialdira hamar proiektu aurkeztu ziren, eta epaimahaiak 6.000 euroak bost proiektutara bideratzea erabaki zuen. Beka banatuta, sortzaile gazteak lanean dira, eta proiektu batzuk laister ikusiko dute argia.





Bisitariak Azpeitian gelditzeko, eskaintza propioa

Marka propioa, herria eta ondarea ezagutzeko proposamen bereziak eta herrian bertan kokatutako turismo bulegoa ari dira fruituak ematen

Loiola, Burdinbidearen Euskal Museoa, Enparan dorretxea, Basazabal jauregia, Antxieta Etxea, Madalena auzoko ospitalea... badugu zer ikusia Azpeitian. Eta badugu zer bizia; festak, kirol probak, paisaia zoragarriak, euskara, kirol ikuskizunak... Hamaika dira turista eta bisitariak gurera etortzeko aitzakiak.

Horren jakitun, Azpeitiko Udalak orain arte egindakoa borobildu, osatu eta eskaintza osoagoa eskaini asmoz, turismo estrategia propioa markatu eta garatzeari ekin dio. Aurtengo udan eman du pauso garrantzitsuena, eta turistak herrian bertan gelditzeko proposamenak zabaltzeaz gain, Alde Zaharrean turismo bulegoa ireki eta

eskaintza osoa bilduko dituen marka ere landu du. *Azpeitia Experience* markaren pean egingo da hemendik aurrera Azpeitiko turismo eskaintza; eta Azpeitia bizitzeko esperientziaren proposamen turistikoak bilduko dira.

Turismoa indartzeko gakoa bisitan datozenak herriratzea dela uste du Udalak, eta hori lortzeko eskaintza bereziak abian jartzen ari da

Azken urteotan turismo arloan izandako hazkundeari eta egindako aurrerapenei heldu eta eskaintza borobiltzea da estrategia berri honen helburua.

Pauso garrantzitsuak eman dira inguruko herriei elkarlanean. Hala, orain artean bezala Iraurgi berritzenen bidez, Urola gustagarri, Bost geltoki, Loiolako eskualdeko turismo bulegoa.... bezalako ekimenak bultzatzen jarraituko du. Guztia kanpotik datozen bisitari eta turistek ahalik eta denbora gehien egin dezaten herrian eta inguruan; horrek guztiak ere herriko ekonomian eragin zuzena duelako.



Baliabide gehiago, herri estrategia

Turismo arloan Udalak baliabide propioak jartzeko apustua egiteko unea haxe zela uste du Agustin Lizarralde Udaleko turismo zinegotziak eta datozen hilabeteetan, "pixkanaka-pixkanaka, herrian arlo hori indartzen jarraitzeko konpromisoa" adierazi du.

Izan ere, Azpeitian badira ehundaka turista izaten dituzten bi gune: Loiola eta Burdinbidearen museoa. Horiei Azpeitia ezagutzeko proposamen erakargarriak egin eta Azpeitia ezagutzen gutxienez egun bat edo pare bat egin dezaten eskaintza aztertzen ari da Udala.

Estrategia eta marka propioaren baitan, Inaziotar bidearen 0. etapa bat izan da abian jarritako lehen ekimena, epe motzean beste bi etapa osatzea da helburua

Eneko Etxeberria, Azpeitiko alkatearen iritziz, "turista eta bisitariak herriratzean dago gakoa, eta ahal den denbora gehiena bertan pasatzeko ekimenak edo esperientziak eskaintzean dago

gakoa. Horrek gure ekonomian, eta batez ere 3. sektorean zuzeneko eragina izango duelako". Horrela, landuko diren arloetan herri-saretea eta une honetan bisitari gehien ekartzen dituen Inaziotar-bidea azpeitiartzeko apustua lantzen ari dira.

Lehen eskaintza, Inaziotar bidea

Azpeitia Experientzeren baitan Inaziotar bidea hasi aurrerako hiru etapa osatu nahi dira. Lehen pausoa eman da, etapa bat egin da. 21 kilometroko ibilbidean inguruko paraje zoragarriak ezagutzeaz gain, Loiolako Inazioren bizitzan garrantzitsu izan ziren gunean bisitatzen dira.

Plaza Txikian, turismo bulegoa eta bisita gidatuak



a buztuaren hasieratik dago Azpeitiko Turismo bulego Plaza Txikian, Udaltzaingoaren ondoan. Agustin Lizarralde Turismo zinegotziaren hitzetan, Udala oso gustura dago estrategia berri horrek orain artean emandako emaitzekin: "Buruan bueltak genituen asmoak gauzatu ditugu uda honetan. Hitzetatik ekintzetara pasatu gara, eta herritar eta bisitarien erantzuna oso ona izan da eta gustura gaude", azaldu du.

Bulego horren bidez, bisitarien erreferentzia diren bi puntuetatik, Loiolako Santutegitik eta Burdinbidearen museotik, herrira erakarri eta ondarea eta eskaintza ezagutzeko saltoa egitera animatzea izan da helburua. Horretarako, ezinbestea izan da Loiolako eskualdeko turismo bulegoarekin, santutegiarekin zein museoarekin koordinatuta lan egitea.

Bisitak, datutan

Abuztuaren hasieran ireki zen bulegoa eta hilabete horretan 421 lagun pasatu dira bulegotik. Bisitarien perfilari dagokionez, gehienbat bikote helduak eta familia gazteak izan dira eta Espainia eta Herrialde Katalanetatik etorri dira.

Ohiko bulegoko informazioa eskaintzeaz gain, ordea, hiru bisita gidatu ere egin

dira Alde Zaharra zein Inaziotar guneez ezkatzen dituzten historia eta istorioak ezagutzeko. Bisita gidatu horietan 45 lagunek hartu dute parte.

Bidea urratuta, gustura

"Konbentzita gaude ekonomia jardueren dibertsifikazioaren baitan, uda honetako prestatutako ekintzak bezalakoak aurrera eramanez ondo goazela, eta, bide horretan, jarraituko dugu", azaldu du Lizarralde. Zenbakiak ekarri ditu berriro gogora eta hori zerbitzua erabili dutenen datua dela azpimarratu: "Dudarik gabe, nabaria izan delako kalean askoz ere bisitari gehiago izan direla gurean".

Alaitz Aguado turismo teknikariak jasotako bisitariengandik jasotako erantzuna azpimarratu nahi izan du: "Turismo bulegotik eta parrokitik pasatu direnengatik jasotako feedbacka oso positiboa izan da eta baita sektore pribatutik jaso duguna ere", adierazi du. Azpeitian turistak izatea ohiko bilakatzen ari da eta alojamenduak abuztuan beteta izateaz gain, irekita izan diren ostalaritza zerbitzuak ere "lana ondo" egin dute.

Beraz, balorazioa oso positiboa da, Azpeitia bisitarien mapetan kokatzen ari da, eta hori horrela izan dadin lanean jarraituko du Udalak.

Inaziotar bidearen hasierako etapa



Azpeitia ezagutu eta bertan egun pare bat egitera turistak animatzeko plan horren baitan, Inaziotar bidea oso garrantzitsua da Udalarentzat.

Bide horren, lehen etapa Azpeitian hasten da, Loiolan, baina ez da heritik pasatzen. Horregatik, Inaziotar bideari lotutako hiru ibilbide sortzea bururatu zitzaion Jose Mari Gibert Deustuko unibertsitateko erretoreari eta Azpeitiko Udalari aurkeztu zion: "Jende asko Inaziotar Bidea egiten ari zela konturatuta nongoen, baina San Inazioaren bizitza eta hemengo inguruak ezagutu gabe. Horregatik, San Inazioarekin lotura zuten hiru ibilbide zirkularren proiektuarekin txostena osatu nuen", azaldu du Gibertek.

Udalak proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuen, eta lehen ibilbidea egokituta dago Oraingoz Madalenan hasi eta Loiola, Oñaz, Urrestilla eta Eizmenditik pasatu ondoren, Madalenan amaitzen den ibilbidea egokitu da.

Ibilbidea

Lagun Onak Mendi Bazkunako Aitor Unanuek ekarri du paperera Giberten idea. Hala, guztira 21 kilometroko ibilbidea osatu du eta punturik altuena 500 metro inguruan kokatzen da. "San Inazioaren bizitzaren inguruko hainbat leku ikusteaz gain, bestelako edertasuna ere badu, herriko beste txoko batzuetatik ere igarotzen delako", azaltzen du Unanuek berak.

Etxebizitzen beharra ezagutzeko ikerketa, herritarren iritzia jasoz



etxebizitza duin bat izatea herritar orok duen oinarritzko eskubide a da, eta askotan aldarrikatu da hori: “Baina, gaur egun, ez da erraza orokorrean, eta hainbat sektorerentzat zehazki etxebizitza eskuratzea”, dio Josu Labaka zinegotziak. Bide horretan, Azpeitiko Udalak, neurri desberdinak hartu izan ditu orain artean: “Etxebizitza herritarrentzat lehenetsuneko arazoa izan den heinean, Udalarentzat ere horrela izan da”, azpimarratu du.

“Gobernura programan etxebizitzaren inguruko azterketa egingo genuela esan genuen, eta horixe egitera goaz orain. Hurrengo pausoak emateko beharrezko ikusten dugu herritarren nahiak eta beharrik zeintzuk diren jakitea. Horien arabera planifikatzeko eta emateko hurrengo urratsak”, dio Labakak.

Bi eratako azterketa

Aitor Bereziartu zinegotziak egingo den azterketaren inguruko xehetasunak azaldu ditu: “Herritarren iritzia eta beharrik ezagutzeko, bi modu erabiliko ditu Udalak”.

Bi modutako ikerketak egingo dira; alde batetik datuak gurutzatuko dira, eta bestetik, 700 inkestak egingo dira

Alde batetik, Udalak dituen datuen kontraste eta nahastea egingo da. Hori ikerketa erabat teknikoa izango da. Hainbat datu objektibo gurutzatu eta ikertuz egingo da azterketa.

Beste aldetik, ordea, inkestak egingo dira. “Urriaren hasieran herriko etxe gutzietara gutuna bidaliko dugu inkestaren berri emanez, eta ondoren hasiko dira herritarren iritzia jasotzen”, azaldu du. 700 etxebizitza aukeratu dira, ausaz, eta etxe horietako bizilagunei beren iritzia eskatuko zaie. Galderei dagokionez, etxe horietako beharren edo nahien inguruko galderak egiteaz gain, orokorrean, herri-

rrei Azpeitiko etxebizitza beharren inguruko galderak egingo zaizkie.

“Inkestak anonimoak izango dira eta erantzutea borondatezkoa da, baina herritarrei minutu gutxi batzuk eskaini eta inkestak erantzuteko tarte hartzeko eskatu nahi dio Udalak”, dei egin die herritarrei.

Gazteentzat aukera

Ainara Larrañaga Gazteria zinegotziak gogoratu du gazteen arazo nagusietakoa dela etxebizitza eskuratzearena. “Azpeitian gazteen artean hamaika hausnarketa egin izan dira. Azpeitiko Udalaren nahia gazte azpeitiarrak bertan bizi eta lan egiteko aukera izatea da. Egin nahi den inkesta honen bidez gazteek aukera erreala dute etorkizun hurbileko etxebizitza politikan eragiteko, eta Udaletik inkestan parte aktibo izan eta parte hartzeko eskatu nahi diegu”, azpimarratu du.

Inkesta egiteko deitutakoan etxebizitza premia duen gazterik baden galdetuko da, eta horrela bada, hari ere inkesta egiteko gonbita luzatuko zaio.

Deustuko unibertsitatearen eta UEUren ikastaro eskaintza

Udalak ikastaro eskaintza zabala aurkeztua du; indar berezia egin du puntako ikastaroak herrian eskaintzeko



Langabeziari aurre egiteko estrategikotzat jotzen du Udalak hezkun-tza. Horregatik, aurten 200.000 euroko diru poltsa jarri zuen formakun-tza eskaintza zabaltzeko asmoz. Bide horretan udaberrian Deustuko unibertsitatearekin abiatutako bidea indartu eta zabaldu du udazkenerako. Hala, Deustuko Unibertsitatearekin enpresa eta finantza ikastaroak antolatzen segituko du, eta eskaintza horri UEU -rekin (Udako Euskal Unibertsitatea) adostutako ikastaroak gaineratuko zaizkie.

Enpresa munduan hasi berri direnentzat. Enpresaren lege alderdiak. Oinarrizko esparru juridikoa eta Finantza-kudeaketa finantzari ez direnentzat ikastaroak eskainiko dira Deustuko Unibertsitatearekin eta Software librea eta Ubuntu: oinarrizko ikastaroa UEUrekin.

Baina hugarren hanka bat ere zabaldu da batik bat euskaldunak ez direnentzat lanerako euskara ikasteko. Hala, zaintza lanetan ari diren ez euskaldunentzat Euskal sukaldaritza zaintzaileentzat ikastaroa antolatu da Banaizbagara elkartearekin.

Azken urteotan udalak abian jarritako mendeko pertsonei arreta sozio-sanitarioa emateko ikastaroarekin ere jarraituko du Udala.

Langabeziari aurre egiteko ezinbestekotzat du formazioa Udalak eta 200.000 euro jarri ditu herritarrei kalitatezko ikastaroak herrian eskaintzeko

Baina aisialdiko ikastaroak ere eskainiko dira: Gu eta besteak? Kulturak, identitateak eta lurraldeak gizarte globalean (Deusto); euskal mitoak eta euskara (Deusto); Euskal Herriko oroimen historikoa (on - line); adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala eta elkarrekin sukaldean (euskarara gerturatu nahi duten herritar ororentzat) ikastaroak jarriko dira abian.

Urrian hasiko dira ikastaroak eta izena eman daiteke udaletxean edo ikastaroak@azpeitia.eus helbidean.

Hezkuntza Sailak ere urteroko eskaintza

Udalaren Hezkuntza Sailak ere hainbat ikastaro antolatu ohi ditu, urtero bezala marrazki, puntu eta jantzigintza ikastaroak antolatu ditu. .

• **Marrazki artistikoa eta margo lanak**

Irakaslea: Marian Alberdi Elorza
Egunak: Astelehen, ostegun eta ostiralak
Ordua: 10:00etatik 11:30etara
Harremanetarako: 943 15 17 97
655 026 779

• **Puntua (gurutze puntua, puntua eta makinako bordatua)**

Irakaslea: Rosario Ibaeta Gabilondo
Egunak: Astelehen eta ostegunak
Ordua: 15:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 19:00etara
Harremanetarako: 943 81 28 62

• **Ebaketa eta jantzigintza**

Irakaslea: Maite Ostra Albizu
Egunak: Asteazken eta ostiralak
Ordua: 10:00etatik 12:00etara, 15:15etatik 17:00etara eta 17:00etatik 18:45etara.
Harremanetarako: 943 81 24 64

• **Gitarra ikastaroa**

Irakaslea: Amaia Garmendia
Egun eta ordua interesatuekin adostuko dira.
Harremanetarako: 688 660 469

• **Umetxo bat dugu gure bizitzan (0-1 urteko umeen gurasoentzat)**

Irakaslea: Edurne Salegi Garate
Egun eta ordua interesatuekin zehaztuko da.
Harremanetarako: 685 731 301

• **Eskulana**

Irakaslea: Esther Etxarri Markuleta
Eguna: Astearte eta asteazkenetan
Ordua: 10:00etatik 12:00etara, 15:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
Harremanetarako: 685 731 301

• **Arabera**

Irakaslea: Houria Ghindri Fella
Egunak: Zapatu eta jaietan
Ordua: 10:00etatik 12:00etara, 12:00etatik 14:00etara eta 14:00etatik 16:00etara.
Harremanetarako: 676 947 377

Ikasteko arazoa dirua izan ez dadin, haur eta helduentzako bekak

Haurren eskolaz kanpoko ekintzetarako bekez gain, aurtan, lehen aldiz, helduei formatzeko bekak emango ditu Udalak



azpeitiko Udalak formazioa ezinbezetkotzat jotzen du langabeziari aurre egiteko, eta bide horretan, herritarrentzat dirua formakuntzarako arazo ez izateko beka deialdia jarri du abian Udalak. Aurreko urteetan haur eta gaztetxoentzako beka sistemari helduen formaziorako linea gaineratu zaio aurtan.

Laguntza horiek Alde Zaharra biziberritzeko Azpeitiko Udalak, azken urteotan, abian duen proiektuaren baitako beste pauso bat dira

Estitxu Elduaiek azpimarratu duenez, Azpeitiko zein eskualdeko langabeen perfil nagusia titulaziorik gabeena zein lan merkatuaren eskaerei erantzuten ez dieten goi mailako ikasketa dunena da: "Askok, nahiz eta urteak lan berean egin edo titulazio akademikoren bat izan, lan merkatuak gaur egun behar dituen profesional titulurik ez dute, eta horregatik langabezian daude. Titulu falta arazo bihurtzen zaie askori merkatura saltoa egiteko. Horiek titulazioa atera ahal izateko dirua aitzakia ez da izango Azpeitian hemendik aurrera", adierazi du.

Ikasteko helduentzako bekak

Profesionaltasun agiria ateratzeko, ikastaroak egiteko eta Lanbide Heziketako zikloak egiteko matrikula, garraioa eta ikas materiala erosteko laguntzak eman-gu ditu Udalak. Horretaz aparte, Udalak eskaintzen duen formakuntza ikastaroak egiteko eta kasu berezietan ere emango ditu laguntzak

Bekak jasotzeko baldintzak:

- 25 urte baino gehiago izatea
- Langabezian edo lanaldia %50ekoa edo gutxiagokoa izatea

Eskolaz kanpoko jardueretarako

2014an hasi zen Udala 3 eta 18 urte bitarteko haur eta gaztetxoek eskolaz kanpoko ekintzetarako bekak ematen. Hala, kirol eta kultura ikastaroetan parte hartzeko laguntzak eskaintzen dira. "Urteaz urte, ahalik eta jende gehiagorengana heltzeko oinarriak errebisatzen ditugu, eta aurreko urteko eskariak errebisatzen ditugu, herritarren beharretara egokitzeko", adierazi du Ainhoa Beristain zinegotziak. Bekak jasotzeko baremoak malguagoak direla aurreratu du Beristainek.

Honako eskolaz kanpoko ekintzak laguntzen dira:

- Arte-Musika-Dantza arloari dagozkion formazio-ekintzak
- Gaztedia saileko formazio-ekintzak
- Kirol arloari dagozkion formazio-ekintzak. Kiroldegiko instalazioetako bazkide-kuota.
- Hezkuntza araututik kanpo garatutako beste jarduerak. Udalak aurretik aztertu eta horrela erabakitzen badu.

Herriko kaleetan guztiok seguru sentitzeko neurriak hartu dira

Emakumeek herriko hainbat txokotan sentitzen zuten beldurra ekiditeko neurriak hartu dituz Azpeitiko Udalak



Iazko azaroan, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan, 'Gure herria emakumeen begietatik' ekimena jarri zuen abian Emakumeen Mahaiak. Egitasmoaren baitan, besteak beste, herriko mapa hartu eta hainbat emakumek bereziki gauez beldurra sentiarazten zieten gunek identifikatu eta zehaztu zituzten. Lanketa hartatik abiatuta, Udaleko Hirigintza sailak argiteria eta ikus-eremuak hobetzeko lanak egin ditu azken hilabeteetan.

2015eko azaroaren 25aren harira emakumeek egindako "ariketa interesgarria" goraipatzen du Leire Etxaniz Parekidetasun saileko zinegotziak. "Edonork kalean lasai, beldurrik sentitu

gabe ibiltzeko Azpeitia nahi dugu guk, eta horregatik, segituan hasi ginen horri buelta eman nahian", esan du Etxanizek. Herriko gune zehatzetan emakumeek sentitzen duten beldurraren aurrean bi lan ildo jarraitu dituztela gaineratu zuen: "Alde batetik, emakumeok beldurra senti

laz sortutako ekimenaren harira hartu dira herri seguruagoa egiteko lehen neurriak; herritarren eta Udalaren elkarlanaren fruitu dira

dezakegun gune horiek nola egokitu aztertzen aritu izan dira hirigintzako teknikariak. Eta, beste aldetik, beldurraren pertzepzioaren inguruko hausnarketa serioa egin beharra ere ikusi dugu".

"Urte askoan, hirigintzak ez du beldurraren pertzepzioa edota puntu ilunen sorrera kontuan hartu izan. Gaur egun, baditugu herrian argitu eta zabaldu beharreko gunek. Eta horretan ari gara lanean. Hirigintza arloan ere parekidetasuna landuz, ari gara lortzen hori ere", azpimarratzen du Josu Labaka hirigintza batzordeburuak. Puntu ilunen mapa eta identifikazioa "etorkizunean elkarlanean aritzeko lehen pauso polita" izatea espero duela ere gaineratu nahi izan du.

Iluntasuna vs. segurtasun falta

Herriko hainbat emakumek egindako ekarpenetatik honako hauek dira herri seguruagoa egiteko hartutako neurriak.

ARGIA HOBETZEKO NEURRIAK



Iluntasunak herriko leku oso desberdinetan sortzen die hainbati beldurra. Gaur gaurkoz, honako lekuetan indartu da argiteria: Zelai Luzen; Joan XXIII.a auzoan, Frantziskanetako pareta aldetik, Corrugadoseko sarrera bitartean; Sanjuandegiko etxe azpian; Igerilekutik Loiolako Ignazio etorbirerako zubira bitartean eta Landeta auzoan.

BELDURRA!

ur azpiko pasabideetan ere maiz somatzen dute emakumeek beldurra. Ilunak eta bakartiak izateaz gain, puntuitsuak sortzen direlako. Hori gerta ez dadin, argiteria indartzeaz gain ispiluak ere jarri ditu Udalak pasabide horietan.



Fatxadak konpontzeko laguntzak

Azpeitiko Udalak Alde Zaharreko etxe-atariak konpondu edota txukuntzeko laguntza jarri ditu martxan aurtan; azaroaren 30a bitartean egin beharko dira eskaerak



alde Zaharra biziberritzeko pausoak ematean ari da Udala. Faktore asko dira biziberritze horretan eragiten dutenak, eta, pixkanaka-pixkanaka, hirigintza lanak eginez, merkataria eta tabernariekin elkarlanean, bizilagunen ekarpenen bidez pausoak ematen ari dira.

“Azken urteotan, pauso garrantzitsuak eman ditugula uste dugu herriko gune honetan, eta etorkizunerako ere proiektu garrantzitsuak ditugu esku artean”, azaldu du Lizarralde. Hala, plaza oinezkoentzat berreskuratzea, Santio eta plaza ondoko haurren parkeak egitea, Sanagustin kulturegunea irekitzea edota merkataria zein tabernariekin elkarlanean antolatutako ekintzak ekarri ditu gogora, eta, urte gutxian, “Alde Zaharra asko aldatu dela nabarmena” dela azpimarratu du.

Blziberritze horretan eragin dezaketen aurrera begirako proiektuak ere izan dituzte gogoan; azoka plaza, Basazabal eta Soreasuko proiektuak, hain zuzen ere.

Proiektuak badituzte ere “Alde Zahar bizi izan eta bizirik mantentzeko”, txukun

ere mantendu nahi dutela adierazi dute, eta fatxadak pintatu eta konpontzeko laguntzak mantentze lan horiei loturik aurkeztu dituzte.

Laguntza horiek Alde Zaharra biziberritzeko Azpeitiko Udalak, azken urteotan, abian duen proiektuaren baitako beste pauso bat dira

Aitor Bereziartuak azaldu duenez, 60.000 euroko diru-laguntza emango da guztira: Laguntzak 10 urte baino gehiago dituzten eraikinen jabe edota jabe kide elkarteak eskatu ahal izango dituzte azaroaren 30a bitartean.

Lagunduko diren lanak

- Fatxaden pintaketa eta garbiketa lanak.
- Balkoi, begiratoki edota antzekoen zurgintza lanak eta mantentzeko, konpontzeko edota aldatzeko lanak.

- Teilatu hodiak eta zorrotzenak mantendu eta konponketak.
- Fatxadetako kableak kendu edota ezkutatzeko lanak.

Bete beharrekoak

- Ezingo du antolamenduz kanpo edota ruina egoeran egon.
- 10 urte baino gehiago izan behar ditu eraikinak.
- Udalean aurkeztutako Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) izan beharko dute, 50 urte baino gehiagoko eraikinek.
- Lanek udal baimena izan beharko dute.
- Lanak fatxada osoan egin beharko dira (anpo gelda daitezke behe solairuak).
- Bide publikoetatik ikusi beharko dira fatxadak.

Laguntzak, aurrekontuaren %25a izango dira gehienez, 3.000 euroko mugarekin. Laguntza eskaera egindako hurrenkera kronologikoan emango dira, eta laguntza jasotzen dutenek, hurrengo 5 urteetan ezingo dute berriro jaso.

Azoka plaza egokitze lanak, azken fasean



azoka-plazaren beheko solairuaren kanpo hormak eraberritu eta suteei eta irisgarritasunari dagokion araudira egokitzeko oinarritzko proiektuaren obrak abian dira abuztutik. Obrek sei hilabete iraugo dute.

Asteartetako azokari dagokionez, baserriarrek bilerak egin ostean, beraiekin adostu bezala, abuztuaren 9tik obrak bukatu bitartean Frontoitxikian dira, eta oraingoz, behintzat aldaketaren balorazio positiboa egiten dute.

Bertako produktuen plaza

Azoka plaza berritzearekin bat, Udala bertako produktuen gune erreferentziala izango den azoka sortzeko asmoz prozesu parte hartzailea egiten ari da baserriar, abeltzain eta eragileekin. Hala, helburua da, plaza erabat berritzen denean gune hori asteartetako azokarako izateaz gain, bertako produktuekin lotutako beste ekintza eta programetarako ere izatea.

Horretarako, harategi eta arrandegi postu finkoez gain, bertako produktuak merkaturatuko dituen beste postu bat izatea ere bada apustua. Bide horretan, udazketik aurrera jarraituko du Udalak gune horretako parte hartze prozesuan, gunearen izaera finkatzen joateko.

Autobus gelkoki berriak



uztailaren bukaeratik Sanjuandegi auzoko eta Loiolako autobus geltokiak lekuz aldatuta dira. Behin-behinean esklabata aurrean eta Etxebeltz etxearen aurrera aldatu dira Sanjuandegikoak. Izan ere, Loiolabide auzoa Salbe auzoarekin lotuko duen zubiaren eraikuntza, bi auzoetako urbanizazio lanak eta Loiolara arteko bide zaharra oinezkoetako lanak aurrera doaz. Loiolan berriz, Azkoitiarako noranzkoan doazen autobusak Loiola zentro medikoaren aurrean geratzen dira, kontrako norazkoak, berriz, lehengo geltokiaren ondoan egokitu dute,



Urrestillan, aparkaleku berria

azpeitiko Udalak Urrestillan aparkaleku berri bat ireki du, behin-behinean. Txorietxe eremuko lurjabeekin udal arduradunek sinatutako akordioak egin du posible aparkalekuaren erabilera. Horrela, aipatutako eremuak erabilera publikoa izango du lur-sail horretarako onartuta dagoen etxebizitzak eraikitze proiektua abian jarri bitartean.

BAKEA GUGANDIK ERAIKITZEN

BAKEA GUGANDIK ERAIKITZEN. EGIA, JUSTIZIA, ERREPARAZIOA
ETA BERRIRO EZ ERREPIKATZEKO BERMEA

JARDUNALDIA AZPEITIAN

URRIAK 14, ostirala

09:00-09:15 Harrera eta dokumentazioaren banaketa

09:15-09:30 Agurra eta jardunaldien aurkezpena

09:30-10:15 1936ko guda zibiletik aurrerako giza eskubideen urraketa sistematikoa

10:15-11:00 Diktadura frankista, trantsizioa eta demokrazia

11:00-11:30 Atsedena eta kafe etena

11:30-13:30 1936-2016 emakumeengan izandako errepresioaren berezitasunak

13:30-15:00 Bazkaria

15:00-15:30 Justizia erreparatzailea eta adiskidetzea Ipar Irlandan. Iraganaren kontakizuna bakegintzako tresna gisa

15:30-16:30 "IN DIALOGUE" dokumentala. Irlandako gatazkan protagonista izan diren arteko elkarrizketa

16:30-17:00 Atsedena

17:00-18:30 Ikuspegi internazionala. Gatazkak eta bake-prozesuak mahai ingurua

18:30-19:30 Taldekako hausnarketa eta proposamenak

Urriak 15, zapatua

09:00-11:00 Egia, justizia eta erreparazioaren bitartez bakea eraikitze prozesuaren egungo egoera. Egiazko kontakizuna vs. kontakizun ofiziala

11:00-11:30 Atsedena eta kafe etena

11:30-13:30 Emakumeen begirada. Gure egiazko kontakizun psikopolitikoak indarkeriak dituen ondorioak. Xehetasun psikoemozionalen ekarpena

13:30-14:30 Taldekako hausnarketa eta proposamenak

MATRIKULAZIOA

Azpeitiarrak: matrikula doan daukate,
baina izena eman behar dute.

